

KONTU-KONTARI**ZEURE BURUA ZAIN EZAZU, YAHOO ZINTZOA**

Karmel aldizkariaren zenbaki berezi honetan parte hartzeko gonbita bidali zidaten zuzendaritzakoek. Ez dago esan beharrik edonork ez dituela 25 urte betetzen halako aldizkari baten zuzendaritza-lanetan. Beraz, esatea bera iraingarria gerta daitekeen arren, inolako aitzakiarik gabekoa zen oraingo ospakizun honetarako arrazoia (iraingarria gerta daiteke baina ez da bate-re gaizki etortzen behin baino gehiagotan gogoraraztea hala-koak elkarri). Horretan ez nuen zalantzarik. Argi neukan, bestalde, ezin nuela Julen Urkiza zoriondu gabe utzi ere halako unean. Gizalegearen arabera, inori ezin diezaiokegu zor zaiona uka. Honaino ez nuen arazo zipitzik. Kontua da gonbita irakurri nuenean ez zitzaidala esateko moduko ezer bururatu; zorionak emateko erabili ohi diren hitz hagituez gain ez zitzaidan betetzen ninduen bestelakorik etorri. Lanpetuta eta arduratuta nenbilerako izango zen ziurrenik. Ez dakit. Ahaztuta antzean eduki dut gonbita mahai gainean, zerbait egin behar nuela esaten nion arren lantzean behin neure buruari. Horrela, joan den ostiralean bigarren eskuko liburuak salerosten dituzten denda batean sartu nintzen arte Glasgown.

Familiako batzuk bisitatzera joan nintzen Eskoziako hiri erakargarri horretara pazko-astean. Paseoan gindoazela, euri-zaparrada batek harrapatu gintuen. Bustitzetik blai gelditzeraino bazegoela alderik-eta, parez pare geneukan aipatu liburu-den-

dara sartu ginen. Kanpoko hotz eta hezetasunetik epeltasunera sartzeak eskaintzen zuen gozamina ez zen ezer izan hango usainarekin alderatuta. Niri txikitatik gertatu izan zait usaimena liburuetara hurbiltzeko zentzumenik garrantzitsuenetarikoa. Aterkiak hartarako ontzian utzi eta jakak askatu genituenean, nork bere bidea hartu genuen apalategi artean. Ez dakit zenbat denbora pasatu ostean, klasikoen sailean, *Gulliver's Travels* liburua ikusi nuen. Hara, esan nion neure buruari, prezio onean badago hauxe hartu behar dut, neure gozamenerako, batetik, eta, bestetik, ikasleei erakusteko, Joseba Sarrionandiaren poe-sigintzaz ari gaitezenean. Hartu, eta azala eta hasierako orriak banan-banan pasatu nituen. Oroitzen naiz orri babeslean *Pen-nie* eta *1944* jartzen zuela, lumaz idatzita, bata bestearen gainean. Lehenengo jabearen abizena eta hark liburua eskuratu zuen urtea ziren, hurrenez hurren. Badakit beste zerbait ere irakur zitekeela, baina ezin dut gogoratu une honetan. Orri be-rean, 10 liberatan zegoela salgai ere ematen zen aditzera, honako hau arkatzez idatzita zegoen ordea. Hurrengo orrialdeetan, aurreneko edizioa zela zehazten zuen, nahiz eta bigarren inprimaketaren emaitza izan. Liburu bat esku artean hartuz gero bete beharreko hasierako erritualeko pauso guztiak emanda, laugarren ataleko hamaikagarren kapitulura jo nuen. Hantxe zegoen, bai, *bnuy illa nyba maiab yahoo*, zeure burua zain ezazu, *yahoo* zintzoa. Erabakita neukan: ez nuen bere to-kira itzuli liburua.

Bat-batean, *Karmel* aldizkarira bidali behar nuen dena delako idazkia etorri zitzaidan gogora. Ni konturatu gabe ere subkontzientea lanean ari zitzaidalako beharbada. Ez al zen egoki-egokia desio hori arestian aipatu 25 urteen karietara Julen Urki-zari eskaintzeko: zeure burua zain ezazu, *yahoo* zintzoa? Bada, bai. Bihozkada izan nuen hura baliatuz idatzi behar nizkiola le-rrero batzuk. Gauean, maletan sartu nuen liburua, beste denda batean erositako Faulkner-en biografia batekin batera, biharamunean ahaztu gabe etxera eramateko. Momentu hartan pen-tsatu izan nuen zenbat bider prestatu ote zuen bere maleta Ju-

len Urkizak *Karmel* aldizkarirako bildu edo idatziriko lanez edo prestatu beharreko materialez. Biharamunean, maleta itxi baino lehen, ezin izan nion eutsi ea utzitako lekuan zeuden liburuak berriro begiratu beharreko premiari. Ez, ez ziren desagertu.

Glasgowtik Londreserako hegaldia ohi bezalakoa gertatu izan zen, Heathrowko aeroportura iritsi ginen arte. Lurreratuta ere, 45en bat minutu eduki gintuzten hegazkin barruan, «small problem» bategatik, pilotuak esan zigenez. Lazkao Txiki entzun nuen pilotuaren hitzak zehazten, esanez arazoa txikia izango zela baina eskasa ez. Eta Lazkao Txikik arrazoi zuen nire egoerari zegokionez, Britishentzat txikia izango zelako arazoa baina niretzat, itotzeko modukoa. Estutzen hasi nintzen, larri ibili behar bainuen Bilbora eraman behar ninduen hegaldia harrapatzeko. Ni harrapatu ninduen, bete-betea gainera, *Terminal 5*eko kaosa izan zen.

Momentu haietariko batean ere Julen Urkiza etorri zitzaidan gogora. *Karme*leko lagunei erantzun beharrak sorraraziriko neurosiak ez ninduen bakean uzten, antza denez. Pentsatu nintuen gauzen artean bat zen ea zenbatetan ibiliko ote zen Julen Urkiza aldizkariaren hurrengo zenbakia kaleratu behar, eta lanak bildu edo hornitu ezinik inprimategira bidaltzeko berandu eginda. Poztuko nintzateke halakorik gertatu ez izana, eta are gehiago aurrerantzean gertatuko ez balitzaio. Agian alderantzizkorik ere gertatuko zitzaion noizbait; hau da, zenbaki batean argitara zitezkeen baino lan gehiago bildu, eta hurrengo zenbakian aterako zirela beren lanak esan behar izango zien egileei behin baino gehiagotan. Kontatzen hasita, izango luke zer kontatu, ziur asko. Neuk ere badut zer kontatu edo erantsi, esandakoaren haritik. Julen Urkizak niri erakutsi dit sekula ez dituela eskastzat hartzen bestearen ardurak, txikienak izanik ere kanpotik begiratuta. Solaskidearen larruan jartzen daki eta beti dago prest bere esku legokeena eskaintzeko.

Doi-doi iritsi banintzen ere *Terminal 5*etik *Terminal 2*ko *Gate 4*era, azkenean hartu ahal izan nuen Heathrowtik Bilbo-

rako hegaldia, orain azaltzerik merezi ez duten gorabeherak tarteko izanagatik. Hegazkinean eman ziguten egunkarietan esaten zutenez, ehunka hegaldi utzi zituzten bertan behera eta makinatxo bat atzeratu ostegunean (martxoak 27) *Terminal 5* inauguratu zutenetik, eta kaosak ez zuen hurrengo egunetan hobetzeko trazarik. Arazoak ekipajearen banaketa-eta kontrol-sisteman sortu omen ziren, British Airwaysek azaldutakoaren arabera. Pozarren ibiliko zen Willie Walsh, konpainiako presidentea. Aste honetan, hau da, martxoaren 31n hasi den honetan, publizitate-kanpaina bat abian jartzekotan zeuden, Richard Rogersek diseinaturiko terminala sustatzea helburu hartuta. Esan beharrik ez dago bertan behera utzi dutela kanpaina hori ere. Milaka bidaiariren planak puskatu dituzte, eta, hori gutzi balitz, ez dakit zenbat mila maleta omen dauden terminalean pilatuta. Heathrowko aireportuan gertatu ohi ziren atzerapenei irtenbidea emateko eraiki da *Terminal 5*. Aurrerakuntzaren atzerapenak, Unamunok esango zukeenez. Lehenbailehen bideratuko ahal dituzte arazo denak!, guztion osasunagatik, besterik ez bada ere (bai, badakit gure osasunak ezer gutxi kezkatzen dituela halako ardurak dituztenak).

Pentsatzen hasita, iruditzen zait arazotxoren bat edo beste izango zutela *Karmelen* ere noizbait, aldaketaren bat edo batzuk zirela-eta. Esate baterako, teknologia berriak erabiltzen hasterakoan ez al zen ezer gertatu, moldaketa-garaietan bestelako erakunde edo egoeretan usu ikusten den bezala? Ordenagailuan neukan lana eta desagertu egin zait. Ez zait iritsi posta elektronikoz bidali zenidan lana. Ordenagailua izorratu zait eta ezin izango dut garaiz amaitu eskatutako lana... Ez dakit nire asmamena beroegia den, baina iruditzen zait halako arrazoi (edo aitzakia?) bat baino gehiago entzun behariko zutela aldizkariko zuzendaritzan ere. Ziur nagoena da *Karmelekoek* ez dutela sekula 6.000 milioi euroko inbertsiorik egin instalazio berrietan, Britishek terminal berria eraikitzeko egin duen bezala. Halako aukerarik izango balu, arraioia!

Ahaztuta nengoen nire maletaz, hegazkinetik jaitsi, eta bildu behar nuen momentua ailegatu zen arte. Hartarako egin nintzen unetik bertatik nekien alferrik jarriko nintzela maletaren zain ekipaje-zintaren ondoan. Eta banekien horrela gertatuko zela ez aztia edo igarlea naizelako: nik hainbeste arazo izan banuen hegazkin batetik bestera iristeko, zer ez zuen gertatu behar maletarekin? Nire maleta oraindik ez da iritsi etxera (as-tebete igaro ondoren!).

Nire maleta ez bezala, ni, behintzat, garaiz iritsi naizen itxaropena dut Julen Urkizari esker ona adierazteko, bere esku utzitako *maletak* okerrik gabe ailegatu baitira helmugara azken 25 urteotan.

Josu Penades